# *Euskararen Gaitasun Agiria*

# *IDAZLANA 03-05-31*

1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
   a) *gaiaren eraketa eta garapena;*
   b) *hizkuntza-aberastasuna eta zehaztasuna;*
   c) *zuzentasuna.*
4. *Orrialde bat izango duzu gidoia egiteko, apunteak biltzek ... Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko, laguntza moduan, dossier bana eta puntu batzuk dituzu: galderak, gogoetak, iritziak... Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik ere egin dezakezu.*
6. *Aukeratutako gaia garatzeko iritzi askatasuna duzu. Beti ere, begirunez joka ezazu: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak...*

# GAIA ADIKZIO SOZIALAK

**Adikzio psikologikoek adikzio kimikoen prozesu bera jarraitzen dute.**



Argazkia: ARGIA 1.867 2002ko iralaren 15a

⇨ Gure bizitzaren zati handi bat telebistaren aurrean.



Argazkia: ARGIA 1.867 2002ko iralaren 15a

⇨ Hainbat pertsona egunero orduak eta orduak Interneti lotuta.



Argazkia: ARGIA 1.867 2002ko iralaren 15a

⇨ Jokoa patologia ere bada, adikzioa sortzen du: ludopatia.

⇨ Batzuen ustez, sexua da adikziorik ukatuena.



Argazkia: ARGIA 1.867 2002ko iralaren 15a

⇨ Lanerako adikzioa ere uste baino zabalduago.



Argazkia: ARGIA 1.867 2002ko iralaren 15a



Argazkia: ARGIA 1.867 2002ko iralaren 15a

⇨ Erostea ere askorentzat adikzioa.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Adikzio hitzaren esanahia.
- Mendekotasuna sor dezaketen jarduerak: jokoa, sexua, erosketak, telebista ikustea...
- Sintomak eta arazoak.
- Gizartearen erantzukizuna ala norberaren kontua?
- Gizarte modernoaren ezaugarri ote?

# GAIA URA: BIZITZA

**Munduko biztanle guztiok edateko adina ur izango al dugu?**

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, 1.500 milioi pertsona edateko urik gabe.




Iturria: *Albistaria*, 1999, 1.154. zk

Duela 4.500 milioi urte zegoen ur kopuru bera dago Lurrean, baina oso gutxi da edateko modukoa.

- Herrialde industrializatuetako ibaien %30 kutsatuta.
- Lurrazalaren %74 ura da.
- Planetako uraren %97 gazia da eta ur gezaren %97 glaziarretan eta izotz geruzetan dago.
- Planetako uraren %0,007 baino ez da bizitzeko baliabide.




Argazkia: *Salvemos la tierra*, Círculo de Lectores.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Uraren garrantzia.
- Ur nahikoa edukitzea edo ez edukitzea. Abantailak, arazoak...
- Urarekiko jarrera. Estatuek, pertsonek...
- Ura gurean: kontzientzia maila, ekologia...
- Zer egin uraren balioaz ohartzeko?